

Egunean Behineko zuen taldean Latxa jokatzeko ikusi nahi?



Egunean Behin (/eguneanbehin/)


2024-05-22 : 08:35

Egunean Behin jokoaren denboraldi honetan (<https://eguneanbehin.eus/15D/>), hasieratik Hitz Zentroak (<https://labur.eus/hitz15>) sortutako Latxa adimen artifiziala euskalduna jokatzeko (<https://sustatu.eus/eguneanbehin/1715091325>) ari da. Haren emaitza egunero ikus daiteke sailkapen orokorrean eta astekoan, baina aukera ireki dugu orain, jokalarien taldeetan ere sar dadin Latxa. Talde bat kudeatzen duzu eta Latxa ere bertan ikusi nahi duzue? Argibideak jarraian.



(https://media.sustatu.eus/media/argazkiak/iki/zaldieroa_Latxa_txiki.jpg)



Honela ikusten dute, adibidez, Hitz Zentroko taldeko lagunek nola ari den Latxa euren artean:




5	Latxa	✓ 127.42
6	Mikel	✓ 126.45
7	Itziar	✓ 121.88
8	Joseba fdl	✓ 117.34
9	juletxara	✓ 117.21
10	Hond	✓ 109.01

Hasiera
Sailkapena
Taldeak
Partidak


Talde horretan dagoen bezala, Latxa beste taldeetan ere gehi dezakegu. Talde bat kudeatzen baduzu Egunean Behin jokoan, ireki aplikazioa mugikorrean, taldearen ezarpenetara joan, eta han gonbidapen giltza aurkituko duzu, hala nola adibideko orri honetan (ezkerreko irudia):





Gako hori kontaktu aukeratik bidaliezaguzu (eskumako irudia), eta gehituko dugu Latxa zeure taldera.

Sailkapen orokorrari dagokionez, ondo doa Latxa, baina ez dugu uste irabazteko aukerarekin dabilenik... Atzo, 44.000 jokalaria baino gehiagoren artean 2.174. zihoan.



Gipuzkoako Kultura

Ekaingo Leizetik
Adimen Artifizialera



Babeslea: Gipuzkoa Kultura



Zure postua: 2174/44383



1 **Txantxi Dotore**

1183.35



2 **Gzk**

1178.58



3 **Gleisdreieck**

1150.67



4 **jortxi**

1144.63



5 **amapola**

1143.65



Hasiera

Sailkapena

Taldeak

Partidak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

CodeSyntaxek kudeatua, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza

Politikarako Sailburuordetzak) (<https://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-704/eu/>) diruz lagundua.